

### KEPA ETA PANTXIKA BIDAIA

1921. urteko udazkenean Miarritzen bizi ziren Kepa eta Pantxika anai-arrebak espero ez zuten abentura bat bizi izan zuten. Kepak hamalau urte zituen eta Pantxikak, berriz, bederatzi. Nahiz eta adin desberdinetakoak izan biak oso gustora zebiltzaten elkarrekin asmakizun ikaragarriak eraikitzen.

Udazkeneko arratsalde batean bizikleta bat sortzea bururatu zitzaion baina ez zen besteak bezalakoa. Bi eserleku zituen eta mila eta bat torloju. Orduak eta orduak pasa zituzten hura eraikitzen eta horretan ari zirela torloju bat falta zitzaiera konturatu ziren. Miarritzeko herrian zegoen burdindegi batera abiatu zirenean arrautz misterioitsu bat aurkitu zuten. Kepa oso jakintsua zenez arrautz hori Hego Amerikako narrasti baten arrautza zela konturatu zen. Arrautza bitxiak 20 cm-tako luzera zuen eta barruko narrasti kumea jaiotzeko zorian zegoen. Pantxika oso ipurtarina zenez narrastia nolakoa zen jakin nahian zegoen baina Kepak ez zion irekitzen utzi, lehenengo narrastiari buruz gehiago ikertu behar zutelako. Beraz, “Aintzinako liburutegira” abiatu ziren.

Ikertzen ari zirela Kepak hauxe irakurri zuen: “*Lagarsis Vicus: Amazonasen dagoen narrasti espeziea bat da eta munduan familia bakarra dago. Jaiotzeko zorioan dagoen unean amaren babesa behar du, bestela espezie hau desagertarazi daiteke,....*”. Momentu horretan anai- arrebek elkarri begiratu, ustekabeko aurpegia jarri eta Amazonaserutz bidaiatzea erabaki zuten. Liburu zahar horretan Lagarsis Vicusen lurraldera iristeko mapa bat bat zegoela ohartu zirenez, moztu eta Kepak poltsikoan sartu zuen.

Hasieran ez zekiten nola joan baina sortzen ari ziren bizikletari begiratu ideia bat bururatu zitzaion: bizikleta hura globo bati lotuz, txoriak bezala hegan eginez, Amazonasera iritsiko ziren. Horretarako, globo erraldoia ganbaran zeuden praka zaharrekin sortu zuten. Ez zuten denborarik, hogeitalau ordu pasa baino lehenago Amazonaseko lurraldeetan egon behar zuten. Horrela, globoa bizikletari lotu, beharrezko arropan jantzi, mapa atzeko poltsikoan eta, arrautza kaiolan sartu eta bidaia martxan jarri zuten.

Atlantikoko ozeanoa gurutzatzen ari zirela hegazti eta helikoptero mota desberdinekin eta eguratseko hainbat fenomenoekin topatu ziren baina azkenean Amazonas ohianera iritsi ziren.

Mapari jarraituz indigenen herri txiki batekin topo egin zuten. Herri horretako buruzagiak, Halaluk, Pantxikak kaiolan zuen arrautza ikusi eta beraiena zela konturatu zen. Hasieran ez zien aurpegi ona jarri baina Kepak Magur hizkuntza (herri indigena horren hizkuntza) zekienez beraiekin hitz egin eta historio osoa kontatu zion. Halaluk arrautza eskuetan zuela Lagarsis Vicus emearengana eraman zuen, beraiekin bizitzen baitzen, tribu honentzat animalia sakratu bat zen eta.

Azkenean, beraien kulturari jarraituz festa handia antolatu zieten Kepa eta Pantxikari, beraiek izan baitziren Lagarasis Vicus espeziearen salbatzaileak. Festa amaitu eta gero, bi anai arrebek tribu osoa agurtu eta Euskal Herria aldera pozik abiatu ziren.